



2011KO OTSAILAREN 10EKO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako otsailaren hamarrean, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- KIROLDEGIKO BIRMOLDAKETA LANEN 4. FASEKO LEHENENGO OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek 4. faseko lehen obra-egiaztagiria luzatu dute. 4. faseko lehen obra egiaztagiriaren zenbatekoa HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA BERROGEI ZENTIMOTAKO (14.527,40 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko lehen obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-KO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN BATEGINDAKO TESTUA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2010eko abenduaren 23an egindako batzarraldian 6 Hirigintza Jarduera Areako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzea erabaki zuen.

Behin betiko onarpen honek behin behinekoz onartutako dokumentuaz gain onartutako alegazio batzuk barneratzen zituen, dokumentuaren idazleei onartutako guztiarekin bategindako testua idaz zezaten agintzea erabaki zen.

Bategindako testu hau ekartzen da orain osoko bilkuraren aurrera honek bere onarpenari buruz erabaki dezan.



Hau honela, bategindako dokumentu hau aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzu Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 Hirigintza Jarduera Areako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren bategindako testu hau onartzea erabakitzen du.

III.- HIRIBARREN, ELOSEGI ETA HIRIGOIEN KALEEN HIRITARTZEKO ETA HIRIGUNEAN BIZIKLETARI ETA OINEZKOENTZAKO BIDE ZATIA SARTZEKO PROIEKTUA EGIKARITZEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA ETA PRESAZKO AITORPENA EGITEA .-

"Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartzeko proiektua" egikaritzeko okupatzea beharrezko diren ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon da 15 eguneko epean eta ukituriko jabe guztiei banan banako jakinarazpena egin zaie.

Horretarako irekitako epean alegazio bat jaso da eta alegazio honen aurrean egingandako txosten juridikoak eta teknikoak ondorengoa diote:

1.- Iñigo de Arteaga y Martin J.k aurkeztutakoa.- 2011ko urtarrilaren 31n, sarrera erregistro zenbakia 259. Alde batetik bere desadostasuna agertzen du proiektuan okupatzea beharrezkoa dela islatutakoarekin.

Alegazioaren bigarren atal batean berriro ere ukitutako azalera gehiegizkoa den argudioan berresten da, eta gehitzen du dena den derrigorrezko jabetza kentze espedienteak ukitutako guneak ezingo duela Infantaduko Jauregiaren sarrerako itxitura gainditu.

Azkenik esaten da alegatzaileak Lazkaoko Monastegiko Aita Bneditarren titularitatekoa den erregistroko 34 zbk.dun finkaren gaineko berreskuratze eskubidea duela, eta beraz aipatu eskubidea ondasun eta eskubideen zerrendan barnera dadin eskaten dela.

Lehenengo gaiari dagokionean, txosten juridikotik ondorioztatzen da, alegatzaileak azaltzen duen aurkako jarrera izaera generikokoa dela eta ez duela bere jarrera oinarritzen duten arrazoi teknikorik adierazten. Aldiz, proiektuaren idazleek txosten bat egin dute non ukitutako azalera okupatzea behartzen duten izaera teknikoko arrazoiak zuzitzen diren. Guzti honengatik alegazioaren atal hau ez onartzea iradokitzen da.

Alegazioaren bigarren atalari dagokionean, txosten juridikoak dio lehenengoan esandako gauza bera esaten dela eta ondorioz alegazioaren atal hau ere ez onartzea iradokitzen da.

Alegazioaren azken atalari dagokionean txosten juridikoan esaten da denboraz kanpoko alegazioa dela, izan ere onartu eta jendaurrean jarritako espedienteak, ikus daitezkeen bezala, ez du ukitzen Arteaga J.k aipatzen duen finka. Finka hau, edozein modutan ere, ez oraingo proiektuak baizik eta aurreko proiektu batek ukitzen du, "Beasain-Lazkao Bizikletari eta Oinezkoentzako Bide Zatia egiteko Proiektua" izena daramanak hain zuzen ere. Horregatik alegazioaren atal hau ere ez onartzea iradokitzen da.

Guzti honen aurrean, eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:



- 1.- Iñigo de Arteaga Martin J.k aurkeztutako alegazioa ezestea, txosten teknikoan eta juri-dikoan adierazitako zioengatik.
- 2.- "Hiribarren, Elosgi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartzeko proiektua" egikaritzeko okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrrenda behin betikoz onartzea. Zerrrenda hau ondorengo da:

Partzela	Katastroko Erref.	Jabea	Azalera m ²	Helbidea
1	2115002	Iñigo de Arteaga Martín	254,4m ²	Dr. Fleming 31 - 7. 28036 MADRID

- 3.- Zerrendatutako ondasun eta eskubideen presazko okupazioaren beharra aitortzea eta dagokion jabetza kentze espedientearen hasiera egina dagoela jotzea.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamazazpi minutu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

